

SELEKTIBITATEA
Graduko unibertsitate
irakaskuntzetarako sarrera proba

BETEBEHARRAK:
Batxilergoko titulua izatea
DEIALDI KOPURUA
Urtean 2

Probaren egitura

Proba bi partetan egituratua dago: **parte orokorra** eta **parte berariazkoa**. Haietatik bi nota aterako dira: sarrera probaren nota eta unibertsitate publikoetarako onarpen nota.

- **Parte orokorra** derrigorrezkoa da. Haren kalifikazioak, batxilergoko kalifikazioarekin batera, sarrera probaren nota osatuko du.
- **Parte berariazkoa** borondatezkoa da. Parte honetan ateratako kalifikazioa, parte orokorrean eta Batxilergoan ateratako kalifikazioarekin batera, unibertsitate publikoetarako onarpen nota osatuko dute.

Parte orokorra

Ariketa hauek izanen ditu:

Lehenbizikoa: informaziozko edo dibulgaziozko testu bat iruzkintzea, Gaztelania eta literatura irakasgaiarekin lotua.

Bigarrena: aukera duzu Filosofiaren historia ala Espainiako historiaren artean.

Hirugarrena: atzerriko hizkuntza.

Laugarrena: modalitateko irakasgai baten gainean. Batxilergoko bigarrenean egin dituzunen artetik aukera dezakezu.

Bosgarrena: euskarazko testu baten gainean (D eta A ereduatarako).

Ariketa bakoitzak bi aukera izanen ditu. Haietako bat aukeratu beharko duzu.

Parte orokorraren kalifikazioa

- Ariketa bakoitzari 0-10 puntu bitarteko kalifikazioa emanen zaio, bi hamarrenekin.
- Parte honetako nota ariketa guztietan izandako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izanen da, bi hamarrenekin.
- Behin gaindituz gero, mugagabeko balioa izanen du nahiz eta zilegi izanen den hurrengo deialdietan berriz aurkeztea kalifikazioa hobetu nahi bada.

Parte berariazkoa

- Gehienez lau modalitateko irakasgaien azterketak egin ditzakezu, Batxilergoko bigarren kurtsoan ematen direnetatik, beti ere parte orokorreko laugarren ariketa egiteko hartu dituzunak ez beste batzuk.
- Ariketa bakoitzak bi aukera izanen ditu. Haietako bat aukeratu beharko duzu.
- Parte honetan izandako kalifikazioa sarreara probako notari gehituko zaio baldin:
 - irakasgai hauek gainditu badituzu eta
 - irakasgai hauek ikasi nahi duzun Graduari atxikitzen zaion Jakintza Arloari lotutakoak badira (Ikus Eranskina).

Parte berariazkoaren kalifikazioa

- Azterketan egiten duzun irakasgai bakoitzean 0-10 bitarteko kalifikazioa emanen zaizu. Kalifikazioa 5 edo gehiagokoa izaten denean, irakasgaia gainditutzat emanen da.
- Parte berariazko irakasgaien kalifikazioak bi urteko balio-aldia izanen du. Denbora horretan, berriz aurkeztu ahalko zara probara, kalifikazioa hobetu nahi baduzu. Azken deialdiko nota hartuko da aintzat baldin aurrekoa baino handiagoa bada.

Sarrera probaren nota

Batxilergoko batez besteko notaren %60 eta parte orokorreko kalifikazioaren %40 batuta 5 edo gehiagoko nota izaten baduzu, gainditu izanen duzu sarrera proba, beti ere parte orokorrean gutxienez 4 aterra baduzu.

SARRERA PROBAREN NOTA

$$0,6 \times \text{BBN} + 0,4 \times \text{POK}$$

Sarrera proba gaindituta, aukera duzu Graduko unibertsitate irakaskuntzetan hasteko.

Unibertsitate publikoetarako onarpen nota

Graduko unibertsitate irakaskuntza ofizialerako onarpen nota honako formula honen bidez kalkulatu da, bi hamarrenekin:

ONARPEN NOTA

$$\text{Sarrera probako nota} + a \times M1 + b \times M2$$

M1 eta M2 dira parte berariazkoan gainditu diren bi modalitate irakasgaien notak, ponderazio parametroez (a eta b) biderkatuta kasuko irakaskuntzara sartzeko onarpen notarik hoberena ematen dutenak.

a eta b 0,1 balioko ponderazio parametroak dira; hala ere unibertsitate bakoitzak zilegi du 0,2raino gehitzea, irakasgai horrek eta aukeratu den irakasgaiak duten egokitasunaren arabera.

Graduko unibertsitate irakasguntzetarako sarrera proba

SELEKTIBITATEA

Eranskina (EDU/1434/2009 agindua)

JAKINTZA ARLOAK / BATXILERGOKO 2. KURTSOAREN MODALITATEKO IRAKASGAIAK

Arteak eta Giza jakintza	Gizarte eta zuzenbide zientziak	Zientziak	Osasunaren zientziak	Ingeniaritza eta Arkitektura
■ Musika azterketa II ■ Ikus-entzunezko kultura ■ Marrazketa artistikoa II ■ Marrazketa teknikoa II ■ Diseinua ■ Enpresaren ekonomia ■ Geografia ■ Grekoa II ■ Musikaren eta dantzaren historia ■ Artearen historia ■ Latina II ■ Literatura unibertsala ■ GGZZei aplikatutako matematika II ■ Adierazpen grafiko-plastikoko teknikak	■ Musika azterketa II ■ Biologia ■ Lurreko eta ingurumeneko zientziak ■ Ikus-entzunezko kultura ■ Marrazketa artistikoa II ■ Marrazketa teknikoa II ■ Diseinua ■ Enpresaren ekonomia ■ Fisika ■ Geografia	■ Grekoa II ■ Musikaren eta dantzaren historia ■ Artearen historia ■ Latina II ■ Literatura unibertsala ■ Matematika II ■ GGZZei aplikatutako matematika II ■ Kimika ■ Adierazpen grafiko-plastikoko teknikak	■ Biologia ■ Lurreko eta ingurumeneko zientziak ■ Elektroteknia ■ Fisika ■ Matematika II ■ Kimika ■ Matematika II ■ Kimika ■ Teknologia industrialia II	■ Biologia ■ Lurreko eta ingurumeneko zientziak ■ Marrazketa teknikoa II ■ Diseinua ■ Enpresaren ekonomia ■ Elektroteknia ■ Fisika ■ Matematika II ■ Kimika ■ Teknologia industrialia II

Unibertsitate publiko bakoitzeko web gunetan eskeintzen dituzten Graduak zein Jakintza Arloari atxikitzen diren konsulta ezazue

Gehiago jakiteko: <http://www.educacion.es> eta <http://www.unavarra.es>